



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

PREBENTZIO-TEKNIKARI BATEN LANPOSTUA OPOSIZIO LEHIAKETA LIBREAREN BIDEZ BETETZEKO OINARRIAK

1.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea zera da: Prebentzioko teknikari baten lanpostua oposizio-lehiaketa librearen bidez betetzea; Lanpostu hori Debagoieneko Mankomunitateko funtzionarioen plantilakoa da, eta Administrazio Bereziko Eskalan, Zerbitzu Berezien Azpieskalan, Eginkizun Berezien Klasean sartzen da.

- Sailkapen Taldea: A2
- Hizkuntza Eskakizuna: 4, aginduzkoa.
- Lanpostu mailako osagarria: 18.
- Osagarri espezifikoak: 1108,26 €hilean.
(Balioespena egiteke)

Ariketa kanporatzaileak gaindituta, deitutako lanpostuak baino gehiago diren hautagaien zerrenda postu berdinetan edo antzekoetan aldi baterako sortzen diren premiak betetzeko erabili ahal izango da.

2.- Eginkizunak

Lanpostu honen eginkizun nagusia zertu beharreko ekintzen koordinazioa da, gutxienez lortzeko laneko arriskuen prebentzio arloan indarrean dagoen araudiak ezarritako segurtasun eta babes mailak.

Laneko Arriskuen Prebentzio Politikan ezartzen den bezala, lan-egoeren etengabeko hobekuntza sustatzen lagundu behar du, Debagoieneko Mankomunitatean enplegatutako langileen segurtasun, osasun eta ongizatean ahalik eta mailarik handienak lortu ahal izateko.

Zertu beharreko eginkizunak honako hauek dira:

- Aldian behin ebaluatzea Prebentzio Sistemaren helburua eta prozedurak, eta horren berri Zuzendaritzari ematea.
- Arriskuen ebaluazioak egin eta gaurkotzea edo, hala balegokio, hori ahalbidetzeko lanak koordinatzea.
- Laneko Arriskuen Prebentzio gaietan aplikatzekoak diren lege eta arauzko betebeharren erregistro gaurkotua izatea.
- Sistemaren prozeduretatik eratorritako zuzenketa- eta prebentzio-ekintzen ezarpen maila kontrolatzea.

- Kanpoko erakundeekin lankidetzak mantentzea zerbitzuaren prestaziorik onena bermatzeko eta sisteman hobekuntzak sustatzeko.
- Prozedurak gaurkotuta mantentzea eta Sistemako dokumentazioaren erregistroak antolatzea. Uneoro kontrolatuta izatea bere kokapena.
- Agintean daudenekin elkarlanean aritzea prozedurak, instrukzioak, erregelak eta zertu beharreko ekintzak aztertu, ezarri eta egiteko. Ezarritako prebentzio-jardueretan aholkularitza eta laguntza ematea.
- Prebentzio arloan intereseko informazioa erakundeko egiturarantz bideratzea, antolaketa maila guztietan.
- Langileen prestakuntza egokia ziurtatzea beren lanpostuei esleituriko eginkizunak bete ditzaten, lan horiek lehenengo pertsonan eginez, edota hala balegokio, horien koordinazioa eginez.
- Larrialdietako planak egin eta ezartzeko koordinazio-lanak gauzatzea, eta horien mantentzea eta gaurkotzea ziurtatzea.
- Langileek edo horien ordezkariak egiten dituzten kontsultei erantzutea.
- Lan-istripuen ondorioz hartzen diren zuzenketa-neurriak ikertu eta proposatzen laguntzea.
- Laneko arriskuei buruz langileen osasuna zaindu eta kontrolatzeko zerbitzua egoki emateko dagokion kanpo-erakundearekin lan egitea.
- Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilerak gidatzea, Batzordeari dei egin, gai zerrendako gaiak proposatu eta aktak eginez. Batzorde horrentzat idazkaritzalanak egitea.
- Bere nagusiak ematen dizkion zereginak, betiere postuaren edukiari buruzkoak baldin badira.

3.- Hautagaien baldintzak

Onartua izateko eta, hala balegokio, oposizio-lehiaketan parte hartu ahal izateko, eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen, ondorengo betebeharrak bete beharko dituzte hautagaiek:

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren bateko nazionalitatea izatea, edota Europar Batasunak Nazioartean egindako eta Espainiak berretsitako itunen bidez, langileen zirkulazio askea onartzen zaien estatuetakoren bateko nazionala izatea.

Europar Batasuneko kide diren Estatuetakoren nazionalen ezkontideak ere parte hartu ahal izango du, zuzenbidez banatuta ez baldin bada, baita bere eta ezkontidearen ondorengoek ere, betiere bi ezkontideak zuzenbidez banatuta ez baldin badaude, eta ondorengo hauek hogeita bat urte baino gutxiago badituzte, edota gehiago izanik gurasoen kontura bizi badira.

- b) 16 urte beteta izatea, eta nahitaezko erretirorako gehienezko adina gainditu gabe izatea.
- c) Erdi mailako unibertsitate-titulazio baten jabe izatea, eta Laneko Arriskuen Prebentzioan goi mailako teknikari titulua, laneko segurtasun espezialitatean.

- d) Lanpostuko eginkizunak betetzea eragotziko dion gaixotasun edo akats fisikorik ez izatea.
- e) Herri Administrazioen zerbitzura lan egiteko debekupean ez egotea zigor-espedienteen ondorioz, edo eginkizun publikoak betetzeko gaitasungabetu edo inhabilitatuta ere ez egotea.
- f) Abenduaren 26ko 53/1984 Legeak —Herri Administrazioen zerbitzuko Pertsonalaren Bateriaezintasunei buruzkoak— ezarritakoaren arabera, ezintasun edo bateraezintasunezko kausa legalen batean sartuta ez egotea, baina lege-arau horrek berorrek aipatzen duen aukera-eskubidea erabil dezakete dagoeneko postu publiko batean daudenek edo bateraezina den jarduera pribatu batean dihardutenek.

4.- Eskariak aurkeztea

Oposizio-lehiaketan onartzeko eskariak Mankomunitateko lehendakari andreari zuzendu behar zaizkio, horretarako ezarritako ereduaren arabera, eta Gipuzkoako Buletin Ofizialean Oinarri hauek argitara eman eta hurrengo egunetik aurkez daitezke, eta gehienez ere 20 egun naturaleko epean deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatuta. Ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Deialdiaren 3. oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak eta bakoitza betetzen dituztela agerrarazi behar dute hautagaiek, betiere eskariak aurkezteko epea bukatzen den egunari buruz.
- b) Lehiaketan balioetsiko diren merituei buruzko datuak agerrarazi behar dituzte hautagaiek. Ez dira balioetsiko eskari-orriari zehazten ez direnak.

Eskari-orriak, eta horien eredia Mankomunitatearen egoitzan emango da, behar bezala beteta eta NAN-DNIren fotokopiarekin batera, Mankomunitateko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira Arrasate pasealekuko 5ean, edota azaroaren 26ko 30/1992 Legeak —Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzkoak— 38.4 artikuluan ezartzen dituen moduetakoren batean.

5.- Aurkeztu beharreko agiriak

a) Eskariarekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

- NAN-DNIren edo, Europar Batasuneko beste estatu bateko kideen kasuan, nortasuna eta nazionalitatea egiaztatuko dituen agiriaren fotokopia.
- Hala badagokio, egiaztatua duen hizkuntza-eskakizunaren agiri bidezko justifikazioa.

b) Aukeratze-prozesuan aurkeztu beharreko agiriak:

Eskari-orrian alegaturiko merituen egiaztagiriak gero aurkeztuko dira, Epaimahai Kalifikatzaileak adieraziko duen eran eta epean.

Agiri horiek oposizio-aldia gainditzen dutenei bakarrik eskatuko zaizkie.

c) Aukeratze-prozesua bukatzen denean aurkeztu beharreko agiriak:

Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko 3. oinarrian eskatzen diren betebeharren egiaztagiriak geroago aurkeztuko dira, 9. oinarrian xedatutakoaren arabera.

d) Agiriak alderatzea:

Parte hartzeko eskatzen diren baldintzen betetzea nahiz merituek egiaztatzeko, orijinalak aurkeztu behar dira beren kopiekin Mankomunitateko Erregistrora ekartzen direnean bertan alderatzeko, salbu NAN-DNIren kopia, hori eskari-orriarekin batera entregatu behar baita. Kopia orijinalarekin alderatzea Mankomunitatean bertan egingo da, eta oposizio-lehiaketan parte hartu ahal izateko bakarrik.

6.- Hautagaien onarpena

Eskari-orriak aurkezteko epea bukatzean, hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak onetsiko ditu Mankomunitateko lehendakariak. Zerrenda horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Mankomunitateko iragarki-taulan emango dira argitara, eta 10 laneguneko epea utziko da ez-onartzea eragin duten akatsak zuzendu eta hutsuneak betetzeko, edota zerrenden aurkako erreklamazioak aurkezteko.

Ez bada erreklamaziorik aurkezten, behin-behineko zerrendak automatikoki behin betiko bihurtuko dira. Erreklamazioak egiten badira, onartu edo baztertu egingo dira beste erabaki baten bidez, eta honela onarturiko behin-betiko zerrendak lehen adierazitako moduan jarriko dira jende aurrean.

7.- Epaimahai Kalifikatzailea

Honela osatuko da oposizio-lehiaketako Epaimahai Kalifikatzailea:

Lehendakaria

- Mankomunitateko idazkaria edo honek eskuordeturiko funtzionarioa.

Mahaikideak

- Ingurumen Zerbitzuaren arduraduna edo honek eskuordeturiko funtzionarioa.
- Beste Herri Administrazio batzuetako bi teknikari, postu honetako eginkizunen antzekoak dituztenak.
- IVAP-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari bat.

Idazkaria

- Mankomunitateko Kontu-hartzailetzako Administrazio Orokorreko teknikaria edo honek eskuordeturiko funtzionarioa.

Euskara maila balioesteko bakarrik, Epaimahai Kalifikatzaileko kide izango da IVAP-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko beste ordezkari bat ere, 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoarenak, 99.2 artikuluan ezartzen duenaren arabera.

Epaimahaiko kideak Mankomunitateko lehendakariak izendatuko ditu eta izendapen hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Mankomunitateko iragarki-taulan emango da argitara.

Epaimahaiari komenigarri iruditzen zaion probetan, gai bakoitzean aditu diren aholkularien laguntza eskatu ahal izango du.

Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbidearen Legeak 28. artikuluan ezarritako egoeretakoren bat ematen bada Epaimahaiko kideengan, kide horiek ez dute esku hartu behar —Mankomunitateko lehendakariari jakinaraziz— eta hautagaiek ere ezetsi egin ditzakete.

Epaimahaiaren erabakiak bildutakoen botoen gehiengoz hartuko dira, eta berdinketa kasuan, lehendakari gisa diharduenarenak erabakiko du.

Epaimahaia ezingo da osatu, ezta lanik egin ere, lehendakaria, idazkaria eta kide titular edo ordezkaren erdia, gutxienez, biltzen ez badira.

8.- Aukeratzeko prozedura

Oposizio aldiko ariketak

Oposizio-aldiko lehen ariketarako deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Mankomunitateko iragarki-taulan emango da argitara. Ondorengo ariketak, Epaimahaiaren erabakiak eta prozedura honen ondoriozko gainerako adierazpen eta jakinarazpenak Mankomunitateko iragarki-taulan argitaratuko dira.

Ekitaldi bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei, ezinbesteko kasuetan izan ezik, hauek behar bezala justifikatuta baldin badaude eta Epaimahaiak askatasunez horrela iritzita.

Oposizio-aldian ondorengo ariketak sartuko dira:

Lehen ariketa: Nahitaezkoa eta kanporatzailea

Bi zati izango ditu:

- a) Lehen zatia: 1. Eranskinen gai-zerrendari buruzko galde-sorta bati idatziz erantzutea. Atal honen gehienezko kalifikazioa 10 puntukoa izango da.
- b) Bigarren zatia: idatziz garatu beharko dira 2. Eranskinen bi gai. Atal honen gehienezko kalifikazioa 20 puntukoa izango da.

Ariketa honen gehienezko kalifikazioa 30 puntukoa da, gutxienez 15 puntu lortu beharko direlarik gainditzeko.

Bigarren ariketa: Nahitaezkoa eta kanporatzailea: Lanpostuko eginkizunei buruz Epaimahaiak planteatzen dituen kasu praktiko bat edo gehiago ebatzi beharko dira.

Ariketa honen gehienezko kalifikazioa 20 puntukoa da, eta gutxienez 10 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

Hirugarren ariketa: Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko berariazko proba. Nahitaezkoa eta kanporatzailea. Dagozkien probak egitetik Epaimahaiak salbuetsita utzi ez dituen oposizio gile guztiek 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba izango da, Euskal Herri-Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua aplikatzeko indarrean dauden arauetan ezarritakoaren arabera.

Ariketa honetan GAI edo EZ GAI izango da kalifikazioa. Hizkuntza-eskakizun hori ez balu beteko hautagai bakar batek ere, lanpostuari 3. hizkuntza-eskakizuna aplikatuko litzaioke, nahiz eta deialdi honen estaldurarako bakarrik izan.

Lehiaketa-aldia

Merituen lehiaketa aldia ez da kanporatzailea izango, eta hor lortutako puntuazioa ere ezingo da kontuan hartu oposizio aldiko probak gainditzeko.

Epaimahaiak ondorengo merituak balioetsiko ditu, eskari-orrian alegatu eta behar bezala egiaztatu baldin badituzte.

- a) Lanbide-esperientzia lortu nahi den lanpostuari dagozkion eginkizunetan. Gehienez ere 6 puntu, 0,2 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko.
- b) Prestakuntza osagarria bete nahi den lanpostuari dagozkion eginkizun edo gaitan. Gehienez ere 5 punturaino balioetsiko da.

Atal hau honela balioetsiko da:

- Ingeniaritza teknikoko titulazioa: 2 puntu
 - Goi mailako teknikari Laneko Arriskuen Prebentzioan, industria-higiene espezialitatean: puntu 1.
 - Goi mailako teknikari Laneko Arriskuen Prebentzioan, ergonomia eta psikosoziologia espezialitatean: puntu 1.
 - Beste ikastaro batzuk: puntu 1.
- c) Informatika jakitea, gehienez ere 3 punturaino. Hautagaiak Word, Acces eta Excel programa informatikoak zenbateraino ezagutzen dituzten balioesteko proba izango da.
- d) Izangaien gaitasunak eta jarrerak baloratuko dira, lanpostua betetzeko behar direnekin bat datozen, teknikari profesional batek egindako elkarrizketaren bitartez. Gehienez 8 puntu.

Aurreko ataletan aipaturiko lanbide-esperientzia Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (INSS) egindako frogagirien bidez egiaztatuko da, edota, zerbitzuak erakunde pribatu batean eman badira, enpresako ziurtagirien bidez. Zerbitzuak Herri-Administrazioen batean eman badira, nahikoa izango da bertan eskumena duen organoak egindako ziurtagiriarekin.

Debagoieneko Mankomunitatean emandako zerbitzuek eta izandako lanbide-esperientzia, eskaria egiterakoan alegatu baldin badira, ez dira agiri bidez justifikatu beharko eta bertan agertzen diren datuen arabera balioetsiko dira.

9.- **Epaimahaiaren proposamena**

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa lehiaketa eta oposizio aldietan lorturiko puntuen batura izango da, eta honela ezarriko da azken puntuazio-ordena.

Merituak balioetsi eta ariketak kalifikatu ondoren, azken puntuazio-ordenaren arabera, gainditu duen hautagaien izena egingo du publiko Epaimahaiak, eta dagokion izendapen-proposamena egingo dio Mankomunitateko Lehendakariari.

Probak gainditu dituztenen zerrenda argitaratu ondorengo lehen egunetik aurrera, proposaturiko hautagaiak 20 egun naturaleko epea izango du 3. oinarrian eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatuz agiriak aurkezteko.

Ezarrিতাকo epe horretan, eta ezinbesteko kasuren batean izan ezik, proposaturiko hautagaiak ez badu eskaturiko dokumentazioa aurkezten edo eskaturiko baldintzak ez dituela betetzen ikusten bada, ezingo da hori izendatu, eta bertan behera geratuko dira berari buruzko jarduketa guztiak, faltsukeriagatik izan dezakeen erantzukizunaz gain.

Kasu honetan, ariketa kanporatzaileak gainditu eta puntuazio-ordenan hurrengoa den hautagaiaren aldeko izendapen-proposamena egingo du eskumena duen organoak.

10.- Praktika- eta prestakuntza-aldia

Lehendakaritzaren Ebazpenez, praktikatako funtzionario izendatuko da Epaimahaiak proposaturiko hautagaia, agiri bidez egiaztatu ondoren 3. oinarrian eskaturiko baldintzak betetzen dituela.

Praktika- eta prestakuntza-aldia kanporatzailea izango da eta 18 hilabeteko iraupena izango du. Onartutako hautagaiak ez badu 4. hizkuntza-eskakizuna izango, denboraldi horretan lortu beharko du. Praktika-aldia 6 hilabetekoa izango da, onartutako hautagaiak aipaturiko profila egiaztatu badu.

Izendapenaren Ebazpena jakinarazi ondorengo 10 lanegunen barruan hasiko da izendaturiko hautagaia bere lanpostuan.

Prestakuntza- eta praktika-aldia bukatuta, eta hautagaiaren lanposturako egokitasunaz Enplegu eta Prestakuntza Batzordeak aurretiaz aldeko txostena egin badu, karrerako funtzionario izendatzeko proposamena Mankomunitateko Lehendakaritzari helaraziko zaio.

Hautagaiak ez badu gainditzen prestakuntza- eta praktika-aldia, izendapenaren eskubide guztiak galduko ditu.

11.- Karrerako funtzionario izendatzea

Praktikatako funtzionarioak, karrerako funtzionarioak izendatuak, bere postuaz jabetu beharko du 10 laneguneko epean, izendapenaren Ebazpena jakinarazi ondorengo biharamunetik zenbatuta. Hautagaiak eskatzen badu, epe hori iraupen bereko beste aldi batera luzatu ahal izango da, horretarako arrazoi justifikaturik baldin badago betiere.

Epe horren barruan postuaz jabetzen ez denak eskubide guztiak galduko ditu, eta erabakitako izendapena ondoriorik gabe geratuko da.

Karrerako funtzionario gisa izendatzeko Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean emango da argitara.

12.- Gorabeherak

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena du edozein zalantza argitzeko eta oposizio-lehiaketa ongi gauzatu dadin beharrezko erabakiak hartzeko, Oinarri hauetan ezarri gabeko guztian.

12.- Aurka egiteak

Deialdi honen, bere oinarrien eta ondorengo administrazio-egintzen eta Epaimahaiaren jardunaren aurka, abenduaren 26ko 30/1992 Legeak —Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzkoa, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua— eta Administrazioarekiko Auzi Eskumena arautzen duen Legeak ezarritako kasuetan eta eran egin ahal izango dute interesatuek.

Arrasaten, 2008ko apirilaren 1ean

EGINBIDEA.- Oinarri hauek Mankomunitate honetako Gobernu Juntak onartu zituen, 2008ko apirilaren 16an egindako bilkuran.

**Arrasaten, 2008ko apirilaren 17an.
BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**

Izpta.: Belén Txintxurreta

1. ERANSKINA

1. gaia.- ESPAINIAKO KONSTITUZIOA. Atariko titulua. Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak (CE: Atariko titulua eta I. titulua).
2. gaia.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUA.- Atariko titulua. EAE-ren eskuduntzak. Lurralde Historikoetako Erakundeak (Estatutua: Atariko titulua, I. titulua, II. titulua).
3. gaia.- ZUZENBIDEAREN ITURRIAK. LEGEA ETA ERREGELAMENDUA. Motak. Legearen indarra duten xedapen arau-emaileak: Legegintza-Dekretuak eta Lege Dekretuak (Administrazio Zuzenbideko Esku-liburuak).
4. gaia.- ENPLEGU PUBLIKOA I. Langile-motak. Enplegatu publikoen eskubideak: banako eskubideak, kolektiboak, karrerarako eskubidea eta ordainsari-eskubideak. Betebeharrak (7/2007 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena: 8-13 art.; 14-30 art.; 52-54 art.).
5. gaia.- ENPLEGU PUBLIKOA II. Administrazio-egoerak. Hizkuntza-normalizazioa (7/2007 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena: VI. titulua; 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoarena: 97-99 art.).
6. gaia.- ADMINISTRAZIO-PROZEDURA I.- Herri Administrazioen printzipio orokorrak. Taldeko organoen eskuduntza eta printzipio orokorrak. Taldeko organoak. Abstentzioa eta errekusazioa. Interesatuak (30/1992 Legea: 3 art.; II. Titulua, I, II, III. kapituluak; III. titulua).
7. gaia.- ADMINISTRAZIO-PROZEDURA II.- Administrazio-prozeduraren faseak: hasiera, antolaketa, instrukzioa, bukatzea eta gauzatzea (30/1992 Legea: 68-101 art.).
8. gaia.- ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA.- Herritarren eskubideak. Erregistro, komunikazio eta jakinarazpen elektronikoak. Prozeduren kudeaketa elektronikoa. (11/2007 Legea: 6 art.; 24-28 art.; 33-39 art.).
9. gaia.- ARLO PUBLIKOKO KONTRATUAK.- Kontratu-motak. Kontratista aukeratzea eta kontratuak esleitzea (30/2007 Legea: 5-12 art.; 122-167 art.).
10. gaia.- MANKOMUNITATEAK.- Horien araubide Juridikoa eta xedea. (7/1985 Legea: 44 art.).
11. gaia.- DATUEN BABESA.- Xedapen orokorrak. Babesaren printzipioak. Pertsonen eskubideak. Xedapen sektorialak (15/1999 Lege Organikoa: 1-32 art.).
12. gaia.- BERDINTASUN POLITIKAK.- Printzipio orokorrak eta babesa. Politika Publikoak. (3/2007 Lege Organikoa: 3-22 art.). Euskal Administrazio Publikoen eremuko neurriak. Berdintasunerako organoak foru-eremuan. Berdintasun-planak. Langileak gaitzea (4/2005 Legea: 10 art.; 15 art.; 17 art.; 18-22 art.).

2. ERANSKINA

1. gaia.- Segurtasuna Lanean. Segurtasun zientifikoa. Segurtasun integratua. Istripuen kausak. Giza faktorea eta prebentzioarekiko erlazioa. Istripurako alde zuzeneko joera. Segurtasuneko beste jokaera batzuk. Industria-segurtasuna.

2. gaia.- Segurtasun-teknikak. Kontzeptua eta definizioa. Sailkapena. Oinarrizko jarduketak motak. Teknika analitikoak. Teknika operatiboak.

3. gaia.- Istripua gertatu aurreko teknika analitikoak. Segurtasuneko ikuskapenak.

4. gaia.- Istripua gertatu osteko teknika analitikoak. Istripuen ikerketa. Jakinarazpena. Jakinarazpenaren metodologia. Istripuen erregistroa. Istripuen ikerketa. Gogoeta orokorrak. Prebentzio-eredua. Bilakaera. Istripuen ikerketa. Kausa-zuhaitzaren metodologia.

5. gaia.- Normalizazioa. Definizioa. Normalizazioaren onurak. Arauen betebeharrak, ezaugarriak eta sailkapena. Arauak ezartzea. Erakunde eskudunak. Normalizazioa enpresan.

6. gaia.- Segurtasun-arauak. Segurtasuna lanean eta produktuaren segurtasuna. Sarrera. Erabilera. Sailkapena. Ezaugarriak. Egiteko prozedurak. Normalizazioa eta ziurtapena Espainian. Lanaren segurtasuna eta produktuaren segurtasuna.

7. gaia.- Arrisku elektrikoa I. Arrisku elektrikoan zerikusia duten faktoreak. Arrisku elektrikoaren balioespena. Korrante elektrikoak organismoan dituen eraginak. Ukimen elektrikoaren motak. Segurtasun-teknikak ukimen elektrikoaren aurka. Babesteko segurtasun-teknikak.

8. gaia.- Arrisku elektrikoa II. Lanabes eta tresna elektrikoak. Taldeko eta banako babeserako baliabide espezifikoak. Instalazio elektrikoaren egiaztatzea. Jatorri elektrikoa duten suteen aurkako babesa. Elektrizitate estatikoa.

9. gaia.- Sute arriskua I. Sute-arriskua. Errekuntza-prozesua. Sutearen kimika. Sutearen faktoreak. Suteen aurkako prebentzioa eta babesa. Detekzio- eta alarma-sistemak. Sutearen sailkapena. Itzaltze-eragileak. Itzaltze-sistemak. Sutearen motak eta itzaltze-eragileen arteko erlazioa.

10. gaia.- Sute arriskua II. Sute-arriskua ebaluatzea. Xedea eta esku hartzen duten faktoreak. Sute-arriskua ebaluatze metodoak. Suteen aurkako babes-baldintzak (CPI-96): administrazio, ospitale eta irakaskuntzarako erabiltzen diren erakundeak. Konpartimentuetan zatitzea. Eraikina hustea eta seinaleztatzea.

11. gaia.- Arrisku kimikoa. Gai kimikoen eta hondakinen biltegiratzea eta manipulazioa. Giro arriskutsuak eta lan-gune itxiak. Segurtasun-elementuak eta babes kolektiboak. Norberaren babeserako ekipamenduak.

12. gaia.- Arrisku biologikoa. Arrisku-taldeak eta konpontzeko neurriak. Norberaren babeserako ekipamenduak. Legionelosiaren prebentzio eta kontrolerako higie-ne eta osasun-irizpideak.

13. gaia.- Jendearen portaera larrialdi-egoeretan. Faktore psikologikoak. Masen ezaugarriak. Kutsatze mentala. Jendea aukeratzeko eta prestatzeko aholkuak.

14. gaia.- Leherketak. Definizioa eta sailkapena. Prebentzioa eta babesa. Leherketa fisikoak. Leherketa kimikoak.

15. gaia.- Segurtasun-teknikak makinetara aplikatuak. Makinetako babesa. Definizioak. Makinek sorturiko arriskuak. Segurtasun-teknikak makinetara aplikatuak. Segurtasuna proiektuan. Gogoeta ergonomikoak. Makina eta tresneriaren banaketa eta mantentze-lana.

16. gaia.- Makinetako segurtasun-araudia.

17. gaia.- Arriskuak eskuzko mantentze-eragiketetan. Arriskua mantentze-eragiketetan. Eskuzko mantentzea. Fasek: dauden arriskuak eta prebentzio-metodoak.

18. gaia.- Arriskua mantentze mekanikoko eragiketetan. Mantentze mekanikoa. Jasotzeko tresneria. Garraio eta altxatzeko tresneria. Trakziorako tresneria.

19. gaia.- Arriskuak mantentze-eragiketetan. Sarrera. Mantentze-lana. Mantentze-lanen xedea eta motak. Segurtasuna mantentze-lanetan.

20. gaia.- Eskuzko lanabesak erabiltzearen arriskuak. Eskuzko lanabesak. Eskuzko lanabes motak. Eskuzko lanabesekiko istripuen kausak. Lanabes mekanikoekiko istripuen kausak.

21. gaia.- Presioko tresnei loturiko arriskuak. Sarrera. Segurtasuneko gogoeta orokorrak. Presioko tresnen araudia.

22. gaia.- Galdarei loturiko arriskuak. Sarrera. Segurtasuneko gogoeta orokorrak. Itc-mie-ap-1.

23. gaia.- Aire konprimatuko instalazioei loturiko arriskuak. Sarrera. Segurtasuneko gogoeta orokorrak. Itc-mie-ap-17.

24. gaia.- Hozteko instalazioei loturiko arriskuak. Sarrera. Segurtasuneko gogoeta orokorrak. Segurtasun-araudia hozteko instalazioetan.

25. gaia.- Bide-segurtasuna. Sarrera. Laneko istripua. Zirkulazioko istripua. *In itinere* istripuak. Bide-segurtasuna. *In itinere* istripuen ikerketa. Bide-prestakuntza eta informazioa.

26. gaia.- Basogintzari lotutako arriskuak. Infoex Plana. Sarrera. Istripu-tasa. Basoko lanen azterketa eta analisisa. Lanabesak eta tresneria. Basoko ibilgailuak.

27. gaia.- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa. Xedea, aplikazio-eremua eta definizioa. Eskubideak eta betebeharrak. Prebentzio-zerbitzuak. Langileen kontsulta eta parte-hartzea. Erantzukizunak eta zigorrak.

28. gaia.- 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, prebentzio-zerbitzuen erregelamendua onartzen duena.

29. gaia.- Nazioartean laneko arriskuen prebentzio arloan eskuduntzak dituzten erakundeak. Lanaren Nazioarteko Erakundea. Gizarte Segurantzako Nazioarteko Elkarteak. Nazioarteko beste erakunde eskudun batzuk. Laneko segurtasun eta osasunerako Europar Agentzia.

30. gaia.- Espainiar Estatuan laneko arriskuen prebentzio arloan eskuduntzak dituzten erakundeak. Lan eta Migrazioetako Zuzendaritza Nagusia. Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionala. Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionala.

31. gaia.- Euskal Autonomia Erkidegoan laneko arriskuen prebentzio arloan eskuduntzak dituzten erakundeak. Osalan.

32. gaia.- Laneko segurtasuna: sarrera. Aurrekariak. Segurtasun-sistemak lan-sistemetan. Prebentzioaren mugak. Lanbide-arriskuaren tratamendua. Lan-istripuen analisisa. Segurtasun-teknikak. Prozedura analitikoak.

33. gaia.- Industria-higienea: sarrera. Osasuna eta lanbide-arriskuak. Lan-higienearen aurrekari historikoak. Laneko higiearen kontzeptua. Higieenak lan-medikuntzarekin dituen erlazioak. Industria-higiearen adarrak.

34. gaia.- Ergonomia eta psikosoziologia aplikatua: sarrera. Kontzeptua eta definizioa. Printzipio nagusiak. Beste zientzia batzuekiko erlazioa. Gizakia-makina sisteman. Sistema-ergonomia. Geometria, ingurumen, denborari buruzko ergonomia. Erakundeen ergonomia.

35. gaia.- Sorospena eta lehenengo laguntzak lantokietan. Nola jokatu istripu-mota desberdinen kasuan.

36. gaia.- Suteen aurkako segurtasunaren antolaketa. Larrialdietako planak. Larrialdietako egoeren sailkapena. Larrialdien antolaketa.

37. gaia.- Arriskuen ebaluazioa. Definizioa eta helburuak. Arrisku ebaluazioaren faseak. Arrisku-ebaluazioaren motak eta metodologia. Arriskuen ebaluazio orokorra. Lan-egoeren ebaluazioa. Nahitaezkotasuna.

38. gaia.- Lan-istripua. Sarrera. Definizioak segurtasunaren ikuspegitik. Definizioa ikuspegi medikotik. Legezko definizioa. Bere azterketa. Lan-istripuen azterketa estatistikoa. Estatistika-indizeak, ordezkatzeko-sistemak. Istripu-estatistika: sarrera. Istripuen sailkapena. Estatistika-indizeak. Egungo joerak. Irudikatze grafikoko sistemak.

39. gaia.- Lanbide-gaixotasunak. Lanak eragindako gaixotasunak. Sailkapena. Kausak. Lanbide gaixotasunak, eragile fisiko, kimiko, biologiko, psikiko eta sozialek eraginak. Jarduera-metodologia.

40. gaia.- Gizarte Segurantzaren Espainiar Sistema. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra: ezintasun iraunkorra. Aldi baterako ezintasuna. Babes-ekintza.

41. gaia.- Lan eta Gizarte Segurantzako ikuskaritza Laneko Segurtasun eta Osasun gaietan.

42. gaia.- Erantzukizuna prebentzio gaietan. Herri-administrazioaren ondare-erantzukizuna. Agintarien eta herri-administrazioen zerbitzura dauden langileen erantzukizuna.

43. gaia.- Prebentzioaren antolaketa eta kudeaketa. Prebentzioaren kudeaketa. Plangintza eta programazioa. Antolaketa. Jarraipena. Egindakoa berrikustea. Prebentzioaren kudeaketa-sistema.

44. gaia.- 487/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, zamak eskuz erabiltzeari buruzko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzkoa, manipulazio horrek langileentzat arriskuak, batez ere bizkarrezur eta gerrialdekoak, dakartzanean.

45. gaia.- 488/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, bistaratze-pantailak dituzten tresnekin lan egiteko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzkoa.

46. gaia.- 1215/1997 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, langileek lan-tresnak erabiltzeko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituenak.

47. gaia.- 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-lanetan gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituenak.

48. gaia.- Gogoeta ergonomikoak hondakinak bildu, garraiatu eta gordailutzeko.